

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Batasuneko garrantziko lau leku kontserbazio bereziko eremu izendatu dituzte

Leireko mendilerroa, Arbaiungo arroila, Arabarko, Artxuga mendilerroa, Zarikieta, Aretako mendiak eta Kodesko mendilerroa dira

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 24

Leireko mendilerroa, Arbaiungo arroila, Arabarko, Artxuga mendilerroa, Zarikieta, Aretako mendiak eta Kodesko mendilerroa dira.

Nafarroako Gobernuak lau foru-dekretu onetsi ditu gaurko bilkuran. Horien bidez, Batasuneko garrantziko lau leku (Leireko mendilerroa, Arbaiungo arroila, Arabarko, Artxuga mendilerroa, Zarikieta, Aretako mendiak eta Kodesko

mendilerroa) kontserbazio bereziko eremu izendatu dituzte. Horrez gain, haien kudeaketa-planak ere onetsi dituzte.

Bestalde, dekretu horiek, Arbaiungo arroila, La Piedra eta San Adriango labarrak, Irunberriko arroila, Iñarbeko arroila, Txintxurreneako arroila, Gaztelu eta Labeja Haitza erreserba naturalen erabilera eta kudeaketa zuzentzen dituzten planak eguneratzen dituzte.

Leireko mendilerroa eta Arbaiungo arroila

Guztira 8.895 ha-ko azalera dute, eta Leireko mendilerro osoa eta Arbaiungo eta Irunberriko arroilak barne hartzen ditu.


Landareen artean garrigak eta ezkaik nabarmentzen dira. Garaiera handitzen den heinean, hariztiak eta pinudiak nagusitzen dira. Bestalde, eremuko fauna-interesa penintsulako esparruaz harago dago, izan ere, Europako sai arrea hazteko gune nagusietako bat da. Harkaitzekin lotutako ugaztunei dagokienez, Nafarroan ezagutzen den koba-saguzarren (*M. schreibersii*) kolonia ugalkor bakarra dagoela nabarmendu behar da.



Arbaiungo arroilaren irudia, Leireko Mendilerroa eta Arbaiungo arroila KEBen barruan dagoena

Arabarko

Zaraitzu eta Erronkariko haranen artean kokatu dago, eta 1.717 ha-ko azalera du. Arabarko eta Seseta Pirinioen aurreko mendilerro txikiak



Arabarko.

barne hartzen ditu.

Nagusiki baso-eremua da eta azalera gehienez pinudiak daude. Horien gain, hariztiak, pagadiak eta garrigak ere badaude. Bertako harkaitzetan zenbait espezie errupikolen lurralde ugalkorak daude, hala nola ugatzak, arrano beltzak, sai arrunta, sai zuria eta belatz handia.

Artxuga mendilerroa, Zarikieta eta Aretako mendiak

Eremu hau Nafarroako ipar-ekialdean dago, eta 19.530 ha-ko azalera du.

Zati gehienez habitat naturalak eta erdinaturalak daude, lurraldearen ia % 80 hartzen dutenak. Basoetan katalogatutako hegazti ugari daude, eta horien artean, basokoak bakarrik diren bi nabarmentzen dira: okil beltza eta okil gibelnabarra, Nafarroan desagertzeko arriskuan dagoena. Horrez gain, larreak eta sasiak ere badaude katalogatutako fauna eta florako zenbait espezieetako habitatean.

Kodesko mendilerroa


Eremu hau Nafarroako mendebaldeko erdiko eremuan dago, eta 5.055,97 ha-ko azalera du.

Askotariko baso-landareak ditu, eta batik bat garrigak, pagadiak eta hariztiak daude. Faunari dagokionez, nabarmendu behar da Kodes, Meano eta Lapoblacion harkaitzekin lotutako hegazti errupikolen komunitatea. Hormetan katalogatutako zenbait hegazti harrapakari daude, hala nola sai arrea, sai zuria, belatz handia, arrano beltza eta hontz handia.

Natura 2000 sarea

Natura 2000 Sareak Hegaztientzako Babes Eremu Bereziak (HBEB), Hegaztien Zuzentzarauaren xedapenen arabera izendatzen direnak eta Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) barne hartzen ditu. Horiek, dagokien kudeaketa-plana dutenean, Kontserbazio Eremu Berezi (KEB) izendatzen dituzte. Natura 2000 Sareko Europako 23.608 eremuen azalera 1.039.332 km² da (lurralde osoko % 18). Nafarroan 2.808 km² (% 27) eta 59 eremu daude, eta horietatik, 17, HBEB dira; 7, BGL eta, 35, KEB.


Galería de fotos



Artxugako mendilerroa, Zarikieta eta Aretako mendiak



Kodesko mendilerroa.



Leireko mendilerroaren eta Arbaiungo arroilako mapa

